

ETXEBIZITZAREN ONDOKO LANDAREDIAREN KUDEAKETA


Etxetik hurbilen dauden landareen bidez sartuko da sua zure etxera. Horregatik ongi kudeatu behar dugu gure etxe ondoko landaredia.

Oro har, etxe inguruan bi eraztun diseinatuko dira honako ezaugarri hauekin:


ETXEBIZITZEN ONDOKO LANDAREDIAREN KUDEAKETA

Etxebizitzaren ondo-ondoko eraztuna:

- Inguruko landarearen altuera zenbatekoa, diámetroa halako lau izanen da. Ez da zuhaitzik izanen bertan.
- Belarra motz mantenduko da eta espezie txikiak landatuko dira, haien artean espazioa utziz.
- Landare igokariak saihestuko ditugu.




BASO ARTEKO URBANIZAZIOAK:



- Mota horretako urbanizazio batean bizi bazara, autobabeserako plana ezagutu beharra duzu.
- Basoko sutearen prebentziorako perimetrazio-zerrenda bat beharko du inguruan.
- Lurzati urbanizatu gabeak behar bezala kudeatuko dira basoan sutea hastea eta hedatzea galarazteko.

AUTOBABESA BASOKO SUTEETAN

Kanpoko eraztuna:



- Malda zenbat eta handiagoa, tarte zabalagoa behar da zuhaitzen artean.
- Zuhaitzak azpitik pasatzeko moduan kimatu behar dira.
- Zuhaitzen artean hiru metroko tarte utzi behar da.
- Kontuan hartu: malda zenbat eta handiagoa, hiru aldiz arkarrago hedatuko da sua.

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

Barne Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Interior
Ingurumeneko eta Lurraldearen
Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Medio Ambiente y
Ordenación del Territorio

NOLA PRESTATU BASOKO SUTEA DAGOENERAKO

- **PREBENTZIOA** dugu tresnarik onena.
- Herritarrok gara gure segurtasunaren arduradun nagusiak.
- Gure etxebizitza ahalik eta kalte gutxien jasateko modukoa izanen da.
- Elementu erregaien eta etxebizitzaren artean espazio libre bat egonen da.
- Errotik moztu behar dira zuhaitzak eta adarrak hamar metroan.
- Gasolio/gas tankerik izanez gero, garbi mantendu behar dira, landarerik gabe.
- Teilatu eta erretenak garbi mantendu behar dira adar eta historik gabe.
- Bero-ganbara daukaten kristalak jarri behar dira.
- Suaren kontrako pertsianak erabili behar dira.
- Heskaietan sutea nekez hartzen duten espezieak aukeratu behar dira. Altzifreak izugarri arriskutsuak dira.
- Eraiki gabeko lurzatietan edo alor landugabeetan ez da landaredia pilatu behar etxeetatik hurbil badaude.
- Sute-ahoak badaude, erabiltzeko moduan egon behar dute.
- Urbanizazioaren autobabeserako plana ezagutu beharra dago.

BASOKO SUTEA BAGOENEAN

- **Deitu 112ra eta auzokoei.**
- Etxebizitzatik ateraz gero, itxi leiho-ate guztiak eta jaitsi pertsianak. Kendu argia eta gasa. Hartu soilik behar-beharrezkoa dena, agiriak, botikak eta diru pixka bat.
- Urbanizaziotik, herritik edo etxetik atera gaitezke.
- Kasu egin agenteen oharrei.
- Badugu aukera eremurik arriskutsuenetik urruntzeko eta arrisku gutxiago duen etxeren batean babesteko.
- Etxean gelditzea erabakitzen badugu, berdin jokatu eta SOS NAFARROAra deituko dugu gure egoera azaltzeko.
- Kanpin batean bazaude, kasu egiezu arduradunaren jarraibideei. Hortik atera behar izanez gero, behar-beharrezkoa baizik ez hartu: agiriak, botikak eta diru pixka bat.

ETXEAN SARTU / ETXETIK ATERA

ETXEAN SARTU

- Zuen etxea zurezkoa bada, edo zurezko teilatua badu, sar zaitetze auzoko baten etxean.
- Eman zuen egoeraren berri agintariei.
- Itxi leihoak, jaitsi pertsianak eta toalla bustiak jarri ate azpian.
- Kendu gortinak leihoetatik eta etxi gas/gasolio hornidura.
- Urez hornitu zaitetze eta eskura izan irratia eta telefonoa.
- Kea handia bada, utzi argiak piztuta eta hartu arnasa lur arrasean.

ETXETIK ATERA

- Erabaki hori patxadaz hartu beharra dago, ateratzeko bideak eta eremu seguruak zein diren ezagututa; azken unean eta oldar batean ateraz gero, hiltzeko arriskua handia izan daiteke.
- Ongi ezagutu behar dira zein diren ateratzeko bideak.
- Ez hartu bestelako biderik, gerta liteke elementu naturalek itxita egotea edo kez beteak.
- Suhiltzaileak iritsi badira, jo haiengana informazio bila.
- Ez zaitetze babestu leizetan edo putzutan.
- Urrun zaitetze haizearen kontrako joanez eta babestu zaitetze gune seguruetan: **eremu erreak.**

